


Cristina Enea mahai gainean berriro

Egiako parkearen gaiak oraindik ere zeresana emango du. Parkearen inguruan nazioarteko lehiaketa egin zen eta Ter agentzia alemaniarrek irabazi zuen, baina Udaltzako proiektu hori ez gauzatea erabaki zuen. Halaber, hainbat berrikuntza lan egitea erabaki zuen, ezinbestekoak direla gaineratuz. Orain udal teknikari talde batek berrikuntza horiek ezinbestekoak direla berretsi du, baina horiek modu isola-

tuan ezin direla egin dio. Hala, plan orokor bat ezinbestekotzat jotzen du. Talde honen arabera, Ter agentziaren proiektua kalfate handikoa da, eta oinarri gisa hartu behar ko litzateke.

Odon Elorza alkateak, teknikari hauek egindako azterketa oinarritzat hartuta, Udaleko beste alderdiekin negoziatu nahi du. Elorzak hilabete honetan gaiaren inguruan akordio bat lortzea du helburu, eta



horretarako teknikari hauen lana jarriko du mahai gainean

Babes ofizialeko 3.000 etxebizitza egin nahi ditu Jaurlearitzak

Eusko Jaurlearitzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazok Donostian Jaurlearitzak babes ofizialeko 3.000tik gora etxebizitza eraiki nahi dituela jakinarazi du. Horretarako datozen hiruzpalau urteetan Jaurlearitzak 288 milioi euro inbertituko ditu.

Madrazok azaldu duenez, etxebizitza gehien Antondegin egingo dira. Martuteneko toki honetan 2.000 etxebizitza egin nahi dituzte. Auzune berria 2004. urtean eraikitzen hastea espero dutela ere esan du Madrazok.

Jaurlearitzak, halaber, Loiolako Ibaier-tzean 166 etxebizitza eraikiko ditu, eta horretarako lurra Udalari erosiko dio. Horrez gain, beste 144 etxebizitza eraiki nahi litzuzke bertan, baina oraindik Udalaren erantzunik ez du jaso. Beste etxebizitzak Marrutxipin eta Izan eraikiko ditu: 135 Marrutxipin eta 200 Izan.

Baina, berriro ere, eztabaida gehien eragin duen proiektua Auditx Akular izan da. Javier Madrazo sailburuak Jaurlearitzak Auditx Akularren babes ofizialeko 500 etxebizitza eraikiko dituela esan du. Hala, lurra erosteko, urte bukaera baino lehen, Udalari hiru milioi euro emango dizkietela azaldu du eta udal taldeei

proiektua babesteko eskatu die. Odon Elorza alkateak Jaurlearitzaren jarrera txalotu du, eta proiektuak hiriarentzat duen garrantzia nabarmendu du. Ildo honetatik, gaia berriro Udaltzara eraman-go duela esan du alkateak. Oposizioko taldeek, berriz, gogor kritikatu dute Javier Madrazo sailburuaren jarrera, Auditx Akularreko egitasmoak ez baitu une honetan Udaltzaren gehiengoaren babesa. EA-EAJko zinegotzi Gurutz Larrañagak ez dagozkion gaietan ez sartzeko eskatu dio Madrazori. "Bere eskumenetara mugatu behar du, eta eskumen horiek dira Udalari babes ofizialeko etxebizitzak bultzatzen laguntzea. Etxebizitzak non eta nola

eraiki erabakitzea Udalari dagokio". PPko Carlos Sanchok gomendioak ez emateko eskatu dio Madrazori. "Gomendioak eman beharrean, Jaurlearitzaren lurretan etxebizitzaren eraikuntza azkartzen lan egin beharko luke: Antondegin eta Zubietan, kasu". Donostiako Sozialista Abertzaleak taldeak ere Madrazo kritikatu du. "Auditx Akularreko operazioaren aurrean plazartu ditugun kezkak eta desadostasunak balore ezkertiarrek dituenak ulertu beharko litzuzke, babes ofizialeko etxebizitzak bezain garrantzitsuak baitira ingurumenaren babesa, garapen jasagarria eta abar kontuan hartzea", azaldu du Miren Zinkunegik.

